



Diseinua
Querida Duska,

Koordinazioa eta testuak
Susana Carramiñana

Ilustrazioak
Ainara Azpiazu

Sektore zinematografikoan emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerantz aurrera egitea



nescoren arabera (Nazio Batuen Hezkuntza, Zientzia eta Kulturarako organismoa), kulturak (ikus-entzunezkoen sektorea barne) generoaren rolak erakusteko, indartzeko eta auzitan jartzeko eremu ezin hobe bat eskaintzen du. Zehazki, azpimarratu behar da zinema funtsezko eragile sozializatzaile bat dela sexu-identitatea eta genero-identitatea eraikitzeke prozesuan. Izan ere, balio kulturalak ematen ditu, desira eta imajinario indibidual eta kolektiboak eraikitzen ditu, eta kulturaz janzten du gure gizarteak. Horretan

datza, hain zuzen ere, sektore zinematografikoaren izaera estrategikoa, emakume eta gizonen gizarte berdinezaleen eraikuntzan aliatu den aldetik. Nolanahi ere, errealitate urruna da hori. Izan ere, handia da, gaur egun, berdintasun-eza eta genero-arrakala, sektore horretan. Datuek agerian uzten dute oso maskulinizatuta dagoela sektorea, non emakumeen eta gizonen arteko berdintasun-eza handia den eta emakumeekiko diskriminazio-egoerak dauden; besteak beste, honako

Kontaktua
kultura-hps-berdintasuna@euskadi.eus
945 016 943

b BERDINTASUNERAKO
UNITATE
ADMINISTRATIBOA
KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKAKO SAILA

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

hauek: sektoreko emakumeen ikusgarritasunik eta erreferentzia-eredurik eza, emakumeek lidergo-postuetan aritzeko dituzten oztopoak, soldata-arrakala, lanbideen segregazio horizontal eta bertikala, proiektuetan finantziarioa eta laguntza eskuratzeko berdintasun-eza, aitortza eta legitimazio txikiagoa, sexu-jazarpena eta jazarpen sexista, eta ikus-entzunezko produktu batzuk, estereotipo sexistak ezabatzen lagundu ordez, sexismoa eta berdintasun-eza sortzen eta erreproduzitzen dutenak.

Kulturaren Euskal Behatokiak egindako "Emakumeen presentzia ikusizko arteetan eta ikus-entzunezkoetan" azterlanaren arabera, EAeko produkzio-ekipo teknikoetan, hamarretik hiru bakarrik dira emakumeak, alegia, % 32,3 bakarrik. Fikziozko film luzeetan dute emakumeek presentziarik handiena (% 35,8), eta txikiena, berriz, animaziozko produkzioetan (% 20,1).

Produkzioen ekipo teknikoetan eta artistikoetan lan egiten dutenen analisia eginez gero, bi kolektiboetan da txikia emakumeen ordezkaritza: % 30,9tik % 36,1era artekoa. Zuzendaritzari lotutako lanpostuetan, emakumeen pisua % 30 besterik ez da; produkzioarekin lotutakoetan, % 40 baino zertxobait gehiago. Dekorazioarekin lotutako lanbideetan, % 30 inguru dira emakumeak,

eta gidoi-, musika- edo muntaia-lanetan are txikiagoa da emakumeen presentzia: % 20 baino txikiagoa.

Zuzendaritza lanpostuetan, ia erabatekoa da gizonen nagusitasuna. Garbi dago, beraz, hierarkian gora egin ahala, emakumeen presentzia txikiagoa dela, eta alderantziz.

Artistei dagokienez, emakumeen proportzioa % 36,1ekoa da. Aipagarria da paper-mota guztietan direla gutxiengo emakumeak: % 40 bat, protagonisten eta aktoreen zerrendako paperetan, eta % 25 bat, paper nagusietan eta bigarren mailakoetan.

Datu horiek guztiek agerian uzten dute sektorea eraldatu beharra dagoela. Izan ere, berdintasunaren kultura bat eraikitzeke funtsezko garrantzia duen sektorea izan arren, gabezia handiak ditu berdintasunaren arloan.

berdinK-aren bigarren zenbaki hau Martxoaren 8an —Emakumeen Nazioarteko Eguna— plazaratu da. Honetan, zenbait ekimen, proiektu, erakunde eta pertsona dakarzkizuegu, ikus-entzunezkoen eremuan emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren alde lanean dihardutenak. Gainera, aukera izango duzue Ainara Azpiazu ilustratzaile eta marrazkilariak aldizkariaren edukiaren inguruan egindako marrazki zoragarriez gozatzeko.

Virginia Yagüe

Gidoilaria, produktorea,
ikus-entzunezkoetan eta Zineman diharduten
Emakumeen Elkartearen burua (CIMA)

«Ikuspegi
bakar
batetik
daude
kontatuta
jendeari
heltzen
zaizkion
produktu
kulturalak»

Zein dira emakumeen eta
gizonen arteko desberdintasun nagusienak
zinemaren eta ikus-entzunezkoen
esparruan?

CIMAk egin duen azken txostenaren arabera, gure zineman emakume profesionalen presentziari buruz, datuak etsigarriak dira. Kontuan hartzen badugu lidergo-taldea (produkzioa, zuzendaritza eta gidoia, non proposamenen edukiari eragiten dioten erabaki nagusiak hartzen diren), ikusten dugu talde horren % 74 gizonezkoak direla, emakumeen % 26ren aldean. Lidergo postuetan dauden emakumeen % 26 horren barruan, % 16 dira zuzendari eta % 17 gidoi-egile. Aurreko urtea "testosteronaz" beteriko zinema-urte maskulinizatutzat har dezakegu.

Izan ere, 2017ko datuak okerragoak dira emakumeentzat: % 7 emakumezko zuzendari % 93ko gizona zuzendarien aldean. 2009an datu berdinak izan ziren; garai hartan, CIMA sortu zen eta lehen ikerketa sustatu zuen: "Zinema eta generoa Espainian", Fátima Arranzek koordinatuta.

Ikuspegi bakar batetik daude kontatuta jendeari heltzen zaizkion produktu kulturalak, emakumeen presentzia txikia baita, eta, beraz, alderdi garrantzitsuenak erabakitzen diren prozesuetatik at gelditzen dira. Zinema eragile sozializatzailea da, balio kultural ez elikatzen dena, eta kultura zabaltzen du. Horregatik, zaila da zinemagintzaren inguruan dabilen androzentrismoa aldatzea; izan ere, lanpostu erabakigarrietan oso emakume gutxi daude. Eta hau ez da bakarrik gremioaren erreibindikazio kontua. Dimentsio sozial eta kultural handia dakar berekin, eta eragina du, bereziki arriskutsuak diren gaiak - emakumeen aurkako indarkeria kasu- begi onez ikusten dutenengan.

**Zein da CIMAREN jarduera?
Zein ekimen mota ari zarete garatzen
berdintasunaren alde lan egiteko zinemari
eta ikus-entzunezkoen sektorean?**

CIMAK hamar urte baino gehiago darama lanean funtsezko bi mailatan.

Lehenengoa, emakumeen bidezko presentzia erreklamatzeko ikus-entzunezko hainbat espezialitate profesionaletan; eta, bigarrena, baina lehenengoarekin lotuta, aldaketak

sustatzea emakumeen ordezkariak edukietan zehazten duten estereotipoetan.

CIMAK Mentoring programa sustatzen du, errealitate bihurtzeko emakumeek burututako zinema-proiektuak; nazioko jaialdietan egoten da sari espezifikoak ematen, emakume zinegileen lanak nabarmentzeko asmoz; WIA beka, (Woman in Action) prestakuntza espezializatuko ikus-entzunezko proiektu bat garatzeko asmoa duena, eta, horrela, beharrezkoa den belaunaldien arteko erreleboa sustatzeko. Gure bazkideen film laburrak (CIMA LABURREAN) eta film luzeak ikusteko zikloak antolatzen ditugu, Negar egiten ez duten emakumeak izeneko proposamenaren bidez; horrela, ikus-entzunezkoen proposamenak zabalduko ditugu eta tokia emango diegu, baldin eta frogatzen badute gure zinemak eskatzen dituen emakume-ereduak aberatsak eta askotarikoak izan daitezkeela, eta urrun daudela emakumearen gaineko sexu-objektu bihurtzetik.

Bestalde, lan aktiboa ari gara egiten sektoreko araudiak aldatzeko, eta ekimenak bultzatzen ari gara ICAA-ri eta gure zinematografiaren ehunean inplikaturik dauden organismo ofizialei laguntza eskatzen dieten emakumeen proiektuak sustatzeko.

Eremu honetan, harreman-sareak oso inportanteak dira lan egiteko; hori kontuan hartuta, esaten zenuen CIMA Mentoring programa sustatzen ari dela

«Zuzenketa-neurri orokorrak aplikatu behar dira, ekintza positiboen bidez, ez bakarrik kuoten bidez, baina batez ere plan globalak»

emakume sortzaileei begira; azalduko diguzu nola funtzionatzen duen?

2013an sortu zen CIMA MENTORING; estimulu eta aholkularitza pertsonalizatuko programa da, emakumeek idatzitako, ekoiztutako edo zuzendutako proiektu berrien finantzaketa eta ekoizpena bultzatzeko pentsatua; ikus-entzunezko eremuko profesionalen belaunaldi berriak sartzea bultzatzen du. Emakumeek sinatutako hainbat proiektu aukeratzen dira eta aholkulari bati/batzuei lotzen zaio/zaie, aholku emateko eta laguntzeko ikuspegi praktikoa eta errealista batetik. Programa horretatik, esate baterako, *Uda 1993* izeneko pelikula atera zen, Carla Simónena zeina Mentoringera heldu baitzen azkenean María Zamorari lotutako proiektu gisa eta Avaloni ekoizle gisa.

Zure ustez, zer egin dezakete erakundeek zineman eta ikus-entzunezko sektorean emakumeek jasaten duten diskriminazio- eta desberdintasun-egoera arintzeko?

Aktiboki lan egin behar da sektorea erregulatzen duten araudiak aldatzeko, esate baterako, ICAAren (Zinematografiaren eta Ikus-entzunezko Arteen Institutua) laguntzak ematen dituzten irizpideak aldatzeko eta, hedaturaz, hainbat autonomia-erkidegotan zinemari egindako laguntza espezifikoen bidez. Ildo horretan, etengabea da sektoreko emakume guztientzat onuragarria den CIMAREN lana. Erakunde eta agintarien betebeharra da neurri horiek hartzea puntuazioa handitzeko berdintasunaren sustapenean, eta halaxe da bereziki Ministerioko Aginduan, zeinaren bidez

ICAAren zinemarako laguntzak emateko oinarriak ezartzen diren. Laguntza orokorretan, aurreikusita dago 4 puntutik 7rako igoera pelikulen buruan emakumeen presentziari laguntzeko; horrela, Espainiako legedia hurbiltzen ari da gai horretan munduko beste herrialde batzuetan dauden aurrerapenetara. Berdintasunaren helburua urrun dago oraindik, eta aldaketa positiboak lortzen dituzten neurriak geroraezinak dira. Puntuazioaren igoera hori inportantea da, baina ICAARI eskatzen diogu begira dezala hurrengo deialdien emaitza puntuazio hori handitzeko edo aldatzeko, helburu hura ez bada betetzen.

Komenigarria eta desiragarria da zure ustez emakume zinegileen lana bultzatzera eta indartzera zuzendutako ekintza positiboak sustatzea, adibidez: diru-laguntza espezifikoen deialdiak emakume zinegileei zuzenduta bakarrik, emakumeek ekoiztutako zinema-jaialdiak, eta abar? Zer nolako ekintza-motak sustatu behar direla uste duzu? Zein dira premia-koenak?

Komenigarria, desiragarria eta ezinbestekoa. Zuzenketa-neurri positiboak sustatu behar dira desorekak zuzentzeko eta konplexurik gabe egin behar da, beste une batzuetan errealizatzaile berrien presentzia sustatzeko aplikatu ziren bezala, gure zinematografiaren beharrezko berrikuntza sortuz. Atzerapen handia daramagu eta horrela islatzen dute datuek. Zuzenketa-neurri orokorrak aplikatu behar dira, ekintza positiboaren bidez, ez

bakarrik kuoten bidez, baina batez ere plan globalak, hala nola, emakumeen lanak zabaltzea eta ikustea, haiek burututako ekoizpen berrien sustapena, prestakuntza espezifikoa, emakumeen harrobia eta lanen film-bilduma sortzea erreferentea osatzeko belaunaldi berrientzat. Estrategia global handia behar dugu ezegonkortasun hori zuzentzeko, zeina berdintasuna lortzeko borondate hertsia batetik baino ez baita lortuko.

Nola baloratzen duzu "Me too" eta "Pandoraren kutxa" bezalako mugimenduak, zeinek azken hilabeteetan argia ikusi duten diskriminazio-egoera eta emakume artistek jasaten dituzten eraso sexistak eta sexu-erasoak salatzeko?


CIMAK komunikatua egin zuen gai horri buruz, hedabideetako zalapartak aztoratzen baikintuen, gure ustez, morboan ardaztutako oso gai larriak ezereztatzen baitzuen. Sexu-abusuko biktimei sendotasuna eman eta animatu behar zaie salatzera horretarako ezarritako legezko bideetatik. Maila horretan, kide amerikarren keinua positibotzat hartu genuen eta balioetsi nahi izan genuen; era berean, bereizi ginen Frantziako zenbait kideren zoritxarreko kritika traketsetik. Sexu-abusua gertatzen da eta emakumeen kontrako boterearen eta indarkeriaren erakuslea da, hain zuzen, botere hori dutenek eginga, gizonezkoek alegia. Sistemaren desoreka bidegabearen eta perbertsioen -sistemak ahalbidetzen

«Lan aktiboa ari gara egiten sektorea arautzen duten araudiak aldatzeko»

«Sexu-abusua gertatzen da eta emakumeen kontrako boterearen eta indarkeriaren erakuslea da»

dituenak- adibidea da. Baina, oso ondo jakin behar dugu zein arriskutsua den gertakari batetik hitzaldi nagusi bat eraikitzea, benetan tamalgarria, baina deigarria dena, eta sortzen duen efektu morbosogatik titularrak betetzen dituen. Hauek bildu behar ditu berdintasunaren aldeko borrokak: emakumeek aukera berdinak edukitzea, ordezkaritzaren ekitatea eta soldata berdina; ez egotea genero-arrazoiengatik sortzen diren diskriminaziorik; eta, zentzu horretan, erakundeen eta gizartearen konpromisoa argia eta sendoa izatea. Horixe da eta izan behar da ardatz nagusia. Horiek dira feminismoaren printzipio ukaezinak eta oso tinko jokatu behar dugu hor.

BarrezK



Donostia Zinemaldiak eta Espaniako Zinematekak, Euskadiko Filmategiarekin, Valentziako Kultur Institutuaren Filmotekarekin eta San Telmo Museoarekin elkarlanean, Muriel Box zuzendari eta

Donostia Zinemaldiaren 66. edizioak atzera begirako ziklo bat eskainiko dio Muriel Box zuzendari eta gidoilari britainiarrari

gidoilari buruzko atzera begirako film-ziklo bat antolatu dute Zinemaldiko hurrengo ediziorako, 66.a, irailaren 21tik 29ra egingo dena, Oscar sari bat jaso zuen emakume britainiar haren omenez.

Muriel Box (1905-1991) idazle eta zuzendari aritu zen 1945. eta 1964. bitartean, eta bere filmetan gai konplexuak eta debekatuak erakutsi zituen —hala nola prostituzioa, adingabez abusatzea,

abortua, sasiko seme-alabak edo sexua nerabezaroan—, hau da, ausart jokatu zuen, garai hartako testuinguru sozial eta politikoa kontuan hartzen badugu.

Dorothy Arzner —atzera begirako bat eskaini zitzaion 2014ko Donostia Zinemaldian— eta Ida Lupino estatubatuarren kasuan bezala, haren filmografia berrikustek funtsezkoa dirudi gaur egun, diskurtso feminista batetik emakumezko errealizadoreek hainbat testuingurutan eta zinematografian jokatu duten rol garrantzitsua aldarrikatzeko. Zinemazaleen artean nolabaiteko prestigioa duen arren, azterlan gutxi egin dira bere obrari buruz, eta haren bere inguruko aipamen labur batzuk baizik ez dira jaso zinemaren historia orokorrean.

Zinemaldiaren ostean, Madrilén eta Valentzian ere egongo da atzera begirakoa ikusteko aukera, Filмотeca Española-n eta Filмотeca del Institut Valencià-n, hurrenez hurren.

Esther Ferrer. Elkarri lotutako guneak

Guggenheim Bilbao Museoa
2018ko martxoak 16
— 2018ko ekainak 10



Esther Ferrer (Donostia, 1937) performancearen aitzindaria izan da Espainian, baita arte horren ordezkari nagusienetako bat ere. Bere burua eta bere lana feministatzat aitortzen du.


Bere lan bikainagatik aintzatespen bat baino gehiago jaso du: Espainiako ordezkarietako bat izan zen 1999ko Veneziako Bienalean; Arte Plastikoen Sari Nazionala eman zioten 2008an; era berean, Eusko Jaurlaritzako Gure Arte Saria jaso zuen 2012an, eta, 2014an, MAV Saria (Mujeres en las Artes Visuales), Marie Claire de l'Art Contemporain Saria eta Arte Plastikoen Velázquez Saria erdietsi zituen.

Ikuspegi tematiko batetik abiatuta, argitaratu gabeko proiektuak soilik erakutsiko dira erakusketa honetan, aurrez inoiz erakusketa-espazio batean egon ez direnak.

Emakumeen zinema: feminismoa eta zinema

Annette Kuhn.
Catedra, 1982

Ikerketa bikain honek zinemaren eta feminismoaren arteko harremanak aztertzen ditu. Ikerketaren egileak termino analitikoak aztertzen ditu, eta ikuskatzen ditu zinema feministaren alorreko eta zuzendaritzako aukerak. Annette Kuhn ek aldarrikatzen du feminismoa eta zinema batzeak ahalbidetzen dituela adierazpen modu berriak, eta benetan egingarria dela zinemagintza feminista alternatibo bat, hizkuntza eta munduaren ikuspegi propioak dituen.




Ainara Azpiazu (Hernani, 1980) marrazkilaria eta ilustratzailea da. Soziologia ikasketak egin ondoren, soziolinguistika lanak egin zituen, baina "irudiekin jolasteko" gogoari jarraituta Arte Ederrak ikasi zituen Bilbon. Ikasketa hauek Italian sakondu zituen: 2012-2013. ikasturtean *Ars in fabula. Master in illustrazione per l'editoria* masterra burututa, Maceratan. Besteak beste, komiki-tirak (Hernaniko Kronika, Berria, GAUR8, Irrien Lagunak, H28) egiten ditu, eta zenbait liburu ere ilustratu ditu: *Nahla*, (Ibaizabal 2015) *Betaurrekoak Hozkailuan* (Ibaizabal 2016) eta *Mozoloaren bidea* (Dobera Euskara Elkarte 2016), *Gaua Anderea* (Ibaizabal, 2017). Etxepare saria eskuratu du *Arraroa* (Pamila, 2017) album ilustratuaren testaren egile bezala. Horrez gain, erakunde publikoetako berdintasun eta euskara sailetarako ilustrazio-lanak ere egin ditu, folleto eta karteletan doazenak, eta komiki tailerrak ematen ditu Hernanin duen lokalean. Muralak egitea gustuko du eta berriki Hernaniko Udalak emandako I. Kale Arte Bekaren onuraduna da, eta Hernaniko frontis atzeko paretan egingo du martxoan zehar.



Ainara Azpiazu

**Kultura eta Hizkuntza Politika
Saileko berdintasun aldizkari
digitala**



**Emakumeen aurkako
indarkeriari ez**

**No a la violencia
contra las mujeres**